

Donostia, 2020ko abenduaren 11

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

DBIZI ZERBITZUARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Haizea Garay Gallastegui Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) DBIZI zerbitzuari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Dbizi hiriko bizikletak alokatzeko sistema berria abian jarriko dela iragarri ondoren, abenduaren 11rako sareak 46 estazio izango ditu, eta guztira 317 bizikleta mekaniko eta 120 elektriko egongo dira erabilgarri. Azaroaren 24an, Udalaren webgunean jartzen zuen, lehen fase horren ondoren, beste 22 estazio jarriko direla, sarea Bidebietara, Herrerara, Altzara eta hiriko beste eremu batzuetara zabaltzeko.

Ikusita estazioak nola banatuta dauden gaur egun –esate baterako, Groseko kale baten hiru estazio jartzea erabaki da, eta, aldiz, auzo batzuetan ez dago estazio bat bera ere–, batzordean planteatu genuen estazioak modu orekatuagoan banatu behar direla, eta hiritik urrunago dauden auzoetan, hain zuzen ere Ekialdeko Barrutian, estazio bat jarri behar dela, zerbitzua eskuragarri egon dadin herritar guztientzat.

Batzordean, Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak uko egin zion aldaketak egiteari, Donostia Ospitalean jartzea erabaki duten estazioa alde batera utzita.

Bestalde, funtsezkoa iruditzen zaigu mugikortasun jasangarria lortzea, joan den martxoko klima larrialdiaren deklarazioan onartutakoaren ildotik, eta horretarako ezinbestekoa da hirian bizikleta garraiobide gisa erabil dadin sustatzea. Hori dela eta, neurrizko tarifak jarri behar dira erabiltzaileentzat, prezioa lehiakorra izan dadin beste garraiobideekin alderatuz, eta zerbitzua maiz erabiltzen dutenak saritu; hau da, deskontuak aplikatu behar dira erabileraren arabera, MUGI txartelaren tarifek tarteka ezartzen dituzten deskontuen ildotik, hileroko egiten diren bidaiak aintzat hartuta. Bestalde, tarifak aldatzea proposatzen dugu, distantzia luzeak egin behar dituztenek gehiago ordaindu behar izan ez dezaten, estazioen egoera edozein dela ere.

Erabilera sustatzeko eta zerbitzua herritar guztientzat eskuragarri egon dadin, ezinbestekotzat jotzen dugu beste hobaririk sar daitekeen aztertzea, familia ugariantzat sortutakoaz harago, eta jadanik beste udal zerbitzu batzuetan hobariak dituzten beste kolektiboak ere gehitu, hala nola Donostia Kirolean abonamendu soziala edo guraso bakarreko familientzako abonamendua dutenak. Era berean, uste dugu MUGI txartelaren tarifikazio sistema tresna egokia dela Dbizi-rentzat ezarritako tarifikazio sisteman hobekuntzarik sar daitekeen baloratzeko.

Hil honetako batzordean, Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak esan zuen dena esandako moduan mantenduko zela, hau da, ez zutela baloratzen beste hobaririk sartzea edo aldaketarik egitea tarifikazioan. Era berean, bigarren faseari dagokionez –auzorik urrutikoenetan 22 estazio jarri behar ziren fase horretan–, adierazi zuen ez zegoela aurreikuspenik eta, oraingoz, baldintza agirian zegoena egingo zela. Kontuan hartuta horrek zer esan nahi duen zerbitzua hedatzeari, irisgarri egiteari eta herritar guztientzat eskuragarri jartzeari dagokionez, gure kezka adierazten dugu, eta, horregatik, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari deusezta dezala hiriko auzoen artean dagoen Dbizi-ko estazioen banaketa desorekatua, eta, horretarako, Udal Gobernuari eskatzen dio egin ditzala behar diren aldaketak zerbitzua auzo guztietara irits dadin.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari handitu dezala egungo udal bidegorrien sarea, bizikleta eta Dbizi-ren zerbitzua erabiltzea errazteko.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurkez dezala lehenbailehen Dbizi-ren estazio sistemaren bigarren fasea ezartzeko kronograma bat.
4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalari alda ditzala Dbizi-ko abonamenduak eta tarifak, zerbitzua eskuragarriagoa izan dadin, egiten diren bidaien arabera deskontuak eginez eta erabiltzailearen errealitate sozioekonomikoa kontuan hartuz. Horretarako, Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ezar ditzala hobari berriak zerbitzuan, beste udal zerbitzuetan, hala nola Dbus-en edo Kirol Txartelaren abonamenduetan, ezartzen diren hobarien ildotik.

Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostiako zinegotzia